



PARTIDUETAN HARTU BEHARREKO COVID-19 NEURRIAK

Partiduen itzulera dela eta ondorengo protokoloa ziurtasunez aurrera eramateko guztion kolaborazioa eskatzen dugu

DENENTZAKO NEURRIAK

- Partidu aurretik etxean temperatura hartuta etortzea gomendatzen da. 37^otik gora izanez gero partidura ezin izango da joan.
- Birusaren inguruko sintomarik izanez gero (Eztarriko miña, eztul sekoa, usaimen edo dastamen falta,...) partidura ezingo da joan.
- Horrelako kasuetan entrenatzaileari eta klubeko Covid arduradunari komunikatuko zaio. Gure kasuan Borja Maruri.
- Sartzean tenperatura hartuko da eta 37^o edo gehiagoko tenperatura duten pertsonek ezin izango dute instalazioetara sartu.
- Instalazioak partidua baino ordu bat lehenago zabalduko dira
- Etxetik aldatuta etortzea gomendatzen da.
- Zelaian sartu eta irtetzean eskuak garbitzeko gelak egongo dira.
- Kirol instalazioetan musukoa erabilitzea derrigorrezkoa da. Jarduera fisikoa egiteko bakarrik kenduko da. Entrenatzaile eta laguntzaileek musukoa erabiliko dute. Lehen entrenatzaileak musukoa kentzeko aukera izango du aginduak ematen ari den bitartean.
- Behin partidua hastearekin bat ordezkoko jokalaria gradetan egokitutako eremuan egon beharko dute.
- Aulkian entrenatzaile eta laguntzaile taldea bakarrik egongo da



KANPOKO TALDEA

- Partidura doazen pertsona guztien (jokalari, teknikari eta klubeko arduradunak) izenabizen eta NAN zenbakiarekin osatutako zerrenda ostiralerako bidaltzea eskatzen da. Taldea osatzen duten pertsonen gain gehienez 8 pertsona gehiago sartu ahal dira. Partiduaren ordurarte ezin izango dute instalazioetara sartu. Hauek ere zerrendan adierazi beharko dira.
- Kirol instalazioetara gradetako sarrera nagusitik sartuko da
- Gradetan gune bat ezarriko da taldearentzat.
- Bi aldagela egongo dira taldearentzat. Aldagela hauek partidu amaieran bakarrik erabili daitezke.
- Gehienez aldagela bakoitzean 6 lagun egon daitezke batera. Talde horretako entrenatzaile taldea izango da arduradun.
- Dutzak ezingo dira erabili.
- Partidua hasi aurretik poltsa batean 4 baloi emango dira eta partidu aurreko beroketa eta atsedena aldia baloi horiekin egin beharko dira. Bigarren zatia hastearekin bat etxeko entrenatzaileari ematea eskatzen da.

ETXEKO TALDEA

- Kirol instalazioetara zelairako sarrera nagusitik sartuko da
- Gradetan gune bat ezarriko da taldearentzat.
- Ezin izango da aldagelarik erabili.
- Instalazioetara jokalaria eta entrenatzaile taldea bakarrik sartu ahalko da